

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

E-postaren, webaren eta USB giltzen erabilera “berdeagoa” izateko aholkuak

FRANTZIAKO ADEMAK (Ingurumenaren eta Energiaren Kontrolerako Agentziak) interesgarriak iruditu zaizkigun aholkuak eman berri ditu, informatikako tresnen erabilerari dagokionez. Egun, teknologia berrien erabileratik Europan egiten berotegi-gasen emisioak %2 dira gutxienez, eta esponentzialki hazten ari dira. Beraz, hain libreki erabiltzen ditugun e-postek, webek eta abarrek gero eta erantzukizun handiagoa dute gure Lurraren berokuntzan. Hona hemen, bada, hainbat aholku sistema informatikoen erabilera ahalik eta garbiena izateko.

2009an munduan 250.000 milioi e-posta bidali ziren eta 2013an 500.000 milioi izango dira. Alor honetan aholkatzen dena:

Behar diren mezuak baino ez bidali. 100 pertsonako enpresa batean mezuen kopurua %10 murriztuz, urtero tona bat gutxiago CO₂ emitituko litzateke.

Behar diren mezuak baino ez gorde. Zerbitzari handiek munduko energia elektrikoaren %1 kontsumitzen dute eta emititzen duten gas kantitatea nazioarteko aireko trafikoaren adinakoa da.

Ez inprimatu ordenagailuan hamar edo hamabost minutuan irakurri ditzakezun mezuak, eta inprimatzekotan, zuri-beltzean eta orrialde bikoitzean egin.

Web-konsultetarako ere bada aholkurik:

Bilaketetan ahalik eta zehatzenak izan, horrela orri eta zerbitzari gutxiago kontsultatu eta lanean jarriko dira.

“Faboritoak” erabili edota zuzenean jo edo idatzi topatu nahi den web-helbidea.

Ahalik eta gehien luzatu ordenagailuaren bizitza. Hau da, ez aldatu urtero.

USB giltzen erabilera ere izugarri areagotu da azken urteotan. Adibidez, gero eta enpresa gehiagok egiten du publizitatea USB bidez. Erabili USBak beharrezkoa den kasuetan, katalogo astunen kasuan edo oso informazio pertsonalizatuen kasuan. Adibidez: 100 orriko txostena pasatzeko onena e-posta da, eta berori irakurtzeko pantailan baino hobe da bi orrialdetan eta zuri-beltzean inprimatzea.



Ura -130°C-tan jariatzea lortu dute

Denok dakigu ura solido, likido edo gas izan daitekeela, eta egoera horien mugak 0°C eta 100°C direla; lehenak solidoa eta likidoa bereizten ditu, eta bigarrenak likidoa eta gasa. Orain, Suediako zientzialari batzuek ura -130°C-tan jariatzea lortu dute, ohikoa baino 10.000 aldiz handiagoa den presioa ezarrita. <http://ttiki.com/30250> (gaztelaniaz)

Zirkuitu elektronikoki biziak

Elektronikako zirkuituak erai-kitzeko silizioa eta antzeko materialak erabili ohi dira. Baina jakin badakigu gure gorputzek ere elektrizitatea garraia dezaketela; hortaz, zientzialariek aurrerapenak lortu dituzte bakterioetan oinarritutako zirkuitu elektronikoekin. Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko kasu hau adibide.

<http://ttiki.com/30251> (gaztelaniaz)

Atlantis espazio-ontziaren azken bidaia

AEBetako Kennedy espazio-zentrotik abiatu zen, uztailaren 8an, Atlantis espazio-ontzia azken aldiz. Hamabi egun geroago lur hartu zuenean, NASAk 40 urteko zikloa itxi zuen espazio-ontzi berrirabiltzarrien alorrean.

<http://ttiki.com/30256> (frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16